Δ1263



herrera-bidebieta

# Frontoian jolasteko aukera berriak



Pasa den hilean Herrerako frontoian datorren denboraldian jolasteko ordu finkoak zozketatu eta finkatu ziren, baina oraindik frontoiak orduak soberan zituela eta, beste zozketa bat egin da.

Bigarren txanda hau, oraindik ordua hartzeko aukera izan ez dutenentzat prestatu da. Bertan parte hartu ahal izan dute frontoian jolasteko ordurik ez zuten talde herreratarrak eta orduak soberan zeudenez, edozein talde donostiarri eman zitzaion aukera.

Gazteek askotan diru arazoak izaten dituztenez, eta pala eta pilota bezalako kirol herritarrak gazteei gerturatzeko helburuz, Auzo Elkartea frontoiaren arduradun den Donostiako Kirol Udal Patronatuarekin bat etorri zen eta herreratar gazte guztientzat asteko ordubete alokatu du, hain zuzen, ostiraletan arratsaldeko 19-etatik 20etara.

Honela, 21 urte baino gazteago diren neska-mutilek **ostiralero dohainik** frontoian jokatzeko aukera izango dute frontoian.

Momentuz hiru hilabetez jarriko da proiektu hau martxan; jarraipena, ekimen honen erantzunaren arabera izango da.

Oraindik badago ordurik soberan, beraz, jadanik alokatutako orduak baino gehiago nahi dituztenek beste ordu batzuk alokatu ahal izango dituzte. Hala balitz, finkatutako bigarren ordu hau ez litzateke finkoa izango, edozein talde berrik hartu baitezake.

Informazio gehiago jaso nahi izan ezkero 39 62 65 telefonora dei eta Santiz galdetu, arratsaldeko 16.30etatik 22.30etara.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

EDARITEGIA BAR JATETXEA
ZUMARDI
DONOSTIA

NAUTILUS
TABERNA
Tfnoa.: 400491

ana
• Elektrika Blend Sistema
• Makilaia Iraunkorra
• Azkazal Labratuak
• Betilen Tindaketa...
• Zedro plaza 2 Tfnoa.: 392051
• Nagusia 27 LASARTE Tfnoa.: 371891

Zure auzoan bertan duzu aukera

bidebieta
TINDATEGIA
Lehorreko garbiketa
Zumardi pasealekua, 32 ☏ 39 41 86

Alberro
Gizonezko moda
Zumardi pasealekua, 20
Tfnoa.: 399078 DONOSTIA

BIKOTE
KAFETEGIA
Zedro plaza 2
☏ 39 99 52